

Felipe Arrese Beitiaren poesia eta euskaldunen nazio identitatea

(The poetry of Felipe Arrese Beitia and the national identity of Basque people)

Bijuesca Basterretxea, K. Josu
Deustuko Unib. Euskal Filologia Saila. Unibertsitateetako
Etorbidea, 24. 48007 Bilbo
josu.bijuesca@deusto.es

BIBLID [1137-4454 (2010), 25; 177-188]

Jaso: 2010.04.06
Onartu: 2010.09.27

Felipe Arrese Beitiaren "Ama euskeraren azken agurrak" poema lan giltzarria da XIX. mendearen amaierako euskaldunen nazio identitatearen eraikuntzan. Lan honetan Arreseren poemako ama euskara euskaldunen volksgeist edo herri gogoaren irudikapen gisa aztertu da.

Giltza-Hitzak: Arrese Beitia. Ama euskara. Nazio identitatea(k). Tubal. Lore Jokoak. Herri gogoa. Volksgeist.

El poema "Ama euskeriari azken agurrak" de Felipe Arrese Beitia es clave en la construcción de la identidad nacional de los vascos de finales del siglo XIX. En el presente trabajo se estudia el ama euskera (madre euskera) del poema como representación del volksgeist o genio del pueblo.

Palabras Clave: Arrese Beitia. Madre euskera. Identidad(es) nacional(es). Tubal. Juegos Florales. Genio del pueblo. Volksgeist.

Le poème "Ama euskeriari azken agurrak" de Felipe Arrese Beitia est un élément clé dans la construction de l'identité nationale des basques de la fin du XIX^{ème} siècle. On étudie dans ce travail la ama euskera (mère euskera) du poème comme représentation du volksgeist ou génie du peuple.

Mots-Clés : Arrese Beitia. Mère euskera. Identité(s) nationale(s). Tubal. Jeux Floraux. Génie du peuple. Volksgeist.

1. EUSKALDUNEN HERRI GOGOA POETIKOKI IRUDIKATZEN

Jakina da XIX. mendean nazio identitateek susperraldi indartsua izan zutela mendebaldean, eta susperraldi horretan Erromantizismoaren ideia eta balioak eraginkorrak izan zirela. Euskal Herria ez zitzaion arrotz izan joera horri. Izan ere, arrazoi sendoak ziren nazio identitateari buruzko kezka orokor horrek oihartzun berezia aurki zezan gure artean, batez ere Euskal Herri penintsularrean, euskaldunen talde identitatearen oinarri sendoenetariko baten galera prozesua gertatu baitzen Espainiako estatu liberalak euskal probintzietako ohizko jarduera politikoa, foruak alegia, legez kanpo utzi zitueanean biztanleen kopuru zabal baten borondatearen kontra.

Foruen galeraren prozesu luzea 1876. urtean amaitu zen. Herriaren izaera politiko-juridikoari egindako erasotzat bizi izanda, ez da harrizkekoa foruen defentsa lehenengo eta haien galera ondoren forma diskurtsibo ugarritan gauzatu izana. Horien artean literatur generoak ez ziren izan axolaga-beenak. Izan ere, literaturaren genero herrikoiek iritzi publikoa sortzeko eta moldatzeko gaitasuna ez zitzaien ohargabe pasatu politika eta kultura eragileei. Ez nolana, euskarazko literaturak eta batez ere poesiak sekularako bultzada izan zuen, lehenago inoiz ez modukoa ziur asko, batez ere 1879an Lore Jokoak Euskal Herri penintsularrean ospatzen hasi zirenetik, 1853az geroz Euskal Herri kontinentalean ospatzen ziren bezala Antoine d'Abbadieren babespean.

XVIII. mendetik behintzat Europan zabaltzen hasia zen herri orok bazuela bere izpiritu edo gogo. Frantsesek *génie du peuple* edo *esprit de la nation* deitzen dutenaren baliokide izango da, hein handi batean, alemanen *volksgeist* kontzeptu ezaguna. Kontzeptuaren konplexutasunean sartu gabe (ikus horretarako Azurmendi, 2007), gogora dezagun Joxe Azurmendirekin zertan datzan *volksgeist* delako hori horretaz jardun duten pentsalarien eskutik, zeinek bere ñabardura bereziaz ornitu baitu. Montesquieuren arabera, “herri gogoan klima, biziera eta ohiturak, eta erlijioa biltzen ziren, eta herri gogo horrek taxutzen zituen Estatuaren eta legeriaren tankera”. Herder Montesquieuren ildotik abiatu da, baina haren ustez “herriaren izpiritua (edo herriaren arima, herriaren jeinua, edo aiurria, karaktere nazionala, denak nahaski berak darabiltzan moduan esateko)” ondoen gertakari historiko nagusietan eta kulturaren gauzatuko da, hizkuntzan eta herri literaturan bereziki. Herder-ek eredutzat aipatu zituen herrien artean euskaldunak ere izan ziren (Altzibar, 1986: 19-20). Hegelek, azkenik, “historia unibertsalaren filosofian kokatuko du herri gogo”, baina naturari lotuta ageri den heinean, estatua baino garrantziagabekoagotzat joko du, estatua arrazoiaren mailakoa baita: “Estatua da erabakigarria; herriak edo etniak, eta are gehiago masak, ez dira tresnaitsuak baino” (Azurmendi, 2007: 137-138 eta 178). Herriaren espiritu edo arimaren adierazlerik egokientzat hizkuntza eta herri literatura jotzen dituzten heinean, Herder-en lanak azkar bilakatuko dira erreferentziazkoak naziotasunaz kezturiko europarren artean (Thiesse, 1999: 42). Jon Juaristik erakutsi du Herder-en ideiak Astarloak jaso zituela Humboldtten bitartez (Juaristi, 1989: 186). Alemaniako bi pentsalari horien lana, Herder eta Humboldttena alegia, eraginkorra izan zen nonbait euskal idazle eta pentsalarien artean, laster ikusiko dugunez.

Mendeetan iraun duen sistema politikoaren gainbeheran murgilduta, foruen defentsa eta galera nahitaezko gaiak izan zituzten poeta euskaldunek. Lan horietan zelan edo halan herri gogoaren irudikapen bizi eta iraunkorrek eskaini zizkiguten. Eusebio M^a Azkuek, esate baterako, Euzka izeneko musa euskaldun bat irudikatu zuen: “¡Euzka, Musa Vizkaitar, / Eraton laguna / biar dan lez maiterik / gaur ez daukaguna!” (Azcue-ko, 1990: 139). *Munduaren escu bijhac* poemaren sarreran Euzka Erato musaren lagun egin badu, beste batean haren alaba egingo du. Izan ere Euzka honen omenez poema luze bat idazteko asmoa zuen, bai eta mila bat bertsolerro idatzi ere. Poemari *Euzkadia* titulua eman zion. Bertan ahots lirikoak (eta haren atzetik idazleak) bere burua harro erakusten du berak dakarrelako lehen aldiz musa horren berri, nahiz eta haren ustez beti izan duten euskaldunek ordurarte inork ikusi gabeko musa hori: “Beti euki dau ta dauko / Vizkaijhak Musa bat / eta bere barrija / neuk lenengoz dakat” (Azcue-ko, 1990: 95). Euzka musa euskaraz idazten dutenen indar sortzailea litzateke, eta alde horretatik ez da bereizten tokian tokiko beste musa batzuegandik: aspaldi ziren ezagunak ordurako *musa castellana* eta antzeko esapideak. Baina hizkuntzari loturiko sormen poetikoaz gain, agerikoa da Azkueren poemari darion kutsu politikoak, ahots lirikoak berak horixe aldarrikatzen baitu: “Musa bat «*geuk bakarrik*» beti euki dogula / «*gueure libertadia*» jhagoten deuzkula” (Azcue-ko, 1990: 95). Schiller-ek¹ ere goratu zuen musa alemana, bai eta salatu ere “behin eta berriro goi klaseen utzikeria hizkuntza eta literatura alemanarekiko” (Azurmendi, 2007: 77). Azkuerenean ez dago horrelako salaketarik, baina euskara lantzeko duen kezka hein handi batean behintzat idazle alemanaren antzekotzat jo liteke. Zoritxarrez, Azkuek poema epiko luzea izan behar zuenaren lehen kantua baino ez zuen ondu, edo hori da behintzat heldu zaigun bakarra, eta bera argitaratu gabe egon zen harik eta Lino Akesolok *Karmel* aldizkarian argitaratu eman zuen arte 1979. urtean, eskuizkribuak 1863ko data badu ere.

Azkuerenak baino arrakasta handiagoa izan zuen bigarren adibideak, Iparragirrenen *Gernikako arbola* ospetsuak. Oraingoak, Azkuerena baino hamar urte zaharragoa izanik, kutsu politiko nabarmenagoa du, Gernikak bete-betean iradokitzen baititu foruak. Hala ere, “arbola santua” bera goratzen den heinean, zuhaitzaren sinbolismoarekin lotu beharra ikusi du Jean Haritschelharrek, bizitzaren zuhaitzarekin alegia: “l’arbre de vie symbolise la vie même du peuple basque” (Haritschelhar, 2000: 6). Herriaren bizitzaren eta arimaren irudikapen sinbolikoa dugu *Gernikako arbola*, ikuspegi historiko-politikotik bada ere.

Iparragirrenen kantuak berehalako arrakasta lortu zuen euskaldunen artean 1853an Madrileko Café de San Luisen aurkeztu zuenean. Euskalerrira etorrita, hemen ere harrera ezin hobea eman zitzaion kantuari. Baina kantua kutsu politikoaz ohartuta eta entzuleen odola berotzen zuela ikusirik, Madrileko gobernuak Urretxuko bardoa Euskal Herritik kanporatu egin zuen entzule euskaldun asaldatuak matxinatu zitezkeelakoan, eta ez zen itzuli

1. Schiller-en poema Azurmendik itzuli eta Intxaustik bildu du (ikus Intxausti, 1990: 20).

1878ra arte (Rubio, 2003: 298). *Gernikako arbola* kantuaren eragina euskal nazio identitatearen eraikuntzan hain da agerikoa ezen lurralde guztietako euskaldunek himno ez ofizialtzat duten (Haritschelhar, 2000).

Iparragirrek eta Azkuek ez bezala, Felipe Arrese Beitiak 1876ko foru abolizioaren ondoren idatzi zituen poemarik ospetsuenak, haietatik asko Lore Jokoen giroan. Lore Jokoen testuingurua gogoan izan beharrekoa da giro horretan sortutako literatura, eta Lore Jokoak eurak, euskaldunen talde identitatea kulturaren bidetik indartzeko erabili zirenez gero foruen galerak eragindako krisiaren ondoren. 1879ko lehen Lore Joko haietako irabazlea Felipe Arrese Beitia izan zen. Deialdiko sariketen artean bazen bat “Euskaldunen gauzic maiteena” gaia lantzen zuen lan poetikorik onenarentzat. Eskakizun horri erantzunez Arrese Beitiak *Ama euskeriari azken agurrak* bertso sorta aurkeztu eta saria bereganatu zuen. Sari hori Asociación Euskara de Navarra eskainia zen, Lore Jokoak antolatzen zituen erakundeak alegia, D’Abbadierekin batera. Saria irabazi zuen lanak nola edo hala erantzun egin ziola sari emailearen asmoari pentsatu beharra badago, orduan Arrese Beitiak asmatu egin zuen euskara mintzagai hartzean, izan ere herri gogoaren adierazleen artean hizkuntza ezaugarri adierazgarrienetakoa baita. Herder-en ustez,

[...] en cada uno de ellos [=los idiomas] está marcada la inteligencia de un pueblo y su carácter ... el genio de un pueblo [no se manifiesta] en ninguna parte mejor que en la fisionomía del habla (Menze, 2003: 37, oh.).

Eta antzerakoa zen Humboldt-en iritzia ere:

La lengua es también la manifestación externa del espíritu de los pueblos: su lengua es su espíritu y su espíritu es su lengua, no se puede pensar a ambos más que como idénticos. Cómo en verdad se unen en una y misma fuente impenetrable, es para nosotros un misterio indescifrable (ikus Menze, 2003: 39).

Hizkuntza eta nazioaren arteko identifikazioaren ikuspegi orokor hori euskaldunen egoerara ekarrita, emaitza espero zitekeena da: kultur ezaugarri ugari banatzen dutenez gero, eta batez ere hizkuntza bera darabilenez gero, euskaldunek nazio bat osatzen dute (Humboldt, 2006: 19-29 eta 217; Zabaleta Gorrotxategi, 2003: 209-212; Zabaleta Gorrotxategi, 2008: 22-23). Baina Humboldt-ek euskaldunen naziotasuna arriskuan ikusten zuen euskara galzorian zegoelakoan estatuen eraginpean. Foruak galdu ondoren hizkuntza nazio identitatearen ezaugarri are garrantzitsuagoa bilakatu zen. Campioneek jaso zuen Humboldt-en ikuspegia hizkuntzak zeukan balioaz naziotasuna definitzeko orduan. Campionen ustez ere hizkuntza naziotasuna denez gero (“la lengua es la nacionalidad”, ikus Elorza, 1985 1: 533), euskararen garena eta iraupena sustatu beharra dago, foruen defentsaren gainetik, “De la conservación de la lengua vascongada” izeneko artikulua arabera (*La Paz* egunkarian argitaratua, 1876-10-5): “era la lengua, y no tanto las instituciones forales, lo que mantenía viva la identidad del pueblo” (Rubio, 2003: 260). Herri gogoaren adierazgarri hizkuntza dela esaten ari zaigu Campion ere. Arrese Beitia Otxandioko santuginak Herder edo Humboldt-en ideiak eza gutzen zituela frogatzea lan nekeza izan liteke, baina Campioneek bitarteko

egin zuela ontzat emanez gero, *Volksgeist* delakoaren kontzeptua euskal literatura eta poesia herrikoian aurkitzea ez da harrigarria. Joseba Intxausti erakutsi du Campion Humboldt-en lehen hartzaileen artean legokeela, Nafarroako euskaltzaleak bere *Gramática* liburuan aipatzen baitu pentsalari prusiarra (Intxausti, 1996: 628-629). Herder ere Campioneak miresten eta aipatzen zituen pentsalarien artean zegoen (Campion, 1900: vii). Iturrietatik ezean, giro kulturaletik eta dibulgazioko argitalpenetatik behintzat jaso zezaketen Arrese Beitia bezalako herri poetek *volksgeist* edo herri gogoaren nozioa.

Dena den, herri gogoari eskainitako tokia ez da berbera XVIII eta XIX. mendeetako pentsalarien sistemetan, eta horren islarik ere aurkituko dugu Arrese Beitiaren poeman. Otxandiokoaren irudikapenean euskara-foruak bikotea ama-aita bikotearekin batera ageri da. Ama eta aita euskaldunen behinolako “guraso zar” mitikoak dira: euskara eta Tubal. Bikote bien arteko gainezarpena ez da erabatekoa, baina ama beti da Ama euskera. Foruak, aitzitik, aitarekin lotzeko joera dago: “Nun dira, bada, Tubal gur’aita, / zur’ondorengo garbiak? Nun dira bada zur’ume zintzo / Eta leialen legiak?” (Arrese Beitia, 1999 1: 82). Hortaz, euskara-foruak aurrez aurre jartzean,aldi berean amaren eta aitaren arteko oposaketa iradokitzen da: “Euskeriari gorroto eta / gozau nahi bere foruak, dirala uste dot barru barrutik / auterestia zoruak. / [...] Baldin euskera bizten ezpada, / Illtzat daukadaz foruak” (Arrese Beitia, 1999 1: 84). Beraz, foruen bizi-iraupenerako alde zurretiko baldintza euskararen bizi-iraupena da. Hizkuntzaren osasun egoera erabakiorra da.

Gurasoen irudia Herder-ek eta Hegel-ek, zeinek bere sistema filosofikoan, herri gogoari eskainitako tokiaren ezberdintasuna azaltzeko erabili izan da. Hona hemen aitaren eta amaren irudiei atxikitako balio ezberdinak Joxe Azurmendiren hitzetan:

Diferentzia nabarmena da *Volksgeist*ak zein leku bestelakoa hartzen duen Herder eta Hegel-en pentsamenduetan. Meinecke-k familiako irudi honen bidez konparatzen ditu biak, [...]. Herder historian interesatzen duena herriak dira (ez Estatuak), eta herrietan hura interesatzen duena, kultura: *Volksgeist*a ama bat bezala pentsatzen da, familian benerazioz maitatua, kulturaren alor guztiak haren haurrak dira. (Aitarik ez da pentsatzen). Hegel-engan familiako aita Estatu da, eta *Volksgeist*a haren emaztea besterik ez da, hari haurrak emateko, hots, Estutaren “helbururako helbide” soil (Azurmendi, 2007: 174-175).

Halatsu, Arrese Beitiaren poeman ere estatuaren aztarna izan litezkeen foruak galdu direnean (eta gogoan izan beharrekoa da garaiko zenbait euskaldunen esanetan euskal probintziak estatu zirela) herri gogoari ez dagokion estatu egitura berri batek ordezkatuta, begiak hizkuntzari zuzentzen zaizkio, ama euskarari. Aita Tubalen presentzia zeharo murrizta da ama euskararen aldean. Foruak galzorian edo galduta direla esaten da, baina aita Tubalen osasun egoerak ez du kezkarik sortzen, agian erabakiorrena ama hizkuntzaren egoera delako: hizkuntza hilez gero (eta hizkuntza herriaren gogoan edo espiritua da), herria bera ere hilko litzateke. “Euskera il ezker / ez dot gura bizi” aldarri egingo du Arrese Beitiak berak, herriaren poetak, beste poema ospetsu batean.

Hortaz, Erregimen Zaharrear foruek izan duten nagusitasuna euskaldunen talde identitatean hizkuntzara igaro da foruen galeraren ondoren. Hizkuntzarekiko kezka lehen ez bezalako indarra hartu du egoera berri honetan, herri gogoaren bizi-iraupena jokoan dago eta. Arrese Beitiaren irudikapen poetikoan euskarari eskainitako garrantziak Herder eta Humboldt-en jarreretatik hurbilago dagoela erakutsiko luke, Hegel-enetik baino.

2. NAZIO IDENTITATEAREN SORRERA: EUSKALDUNEN ARTEKO BATA-SUNERA ERRU GARBIKETAREN BIDETIK

Ama euskera hiltzorian dagoela eta, egoera horren errudunaz ere hausnartzen du Otxandioko poetak. Gure idazle foruzaleak xenofobotzat jo izan dira eta hala izango ziren batzuk, baina Arrese Beitiaren poema honi dagokionez badago zer zehaztu. Iparragirrenen arbola santu emankorra gogora ekarrita, hara nola ikusten duen orain Ama euskarari azken agurra egiten dion seme leialak 11. ahapaldian:

Eta nun dozuz, zeruko arbola, / Zuk ere jantzi berdiak? / Zure erramok billox dakustaz / Igar ta ezkur bagiak. / Ai mingarria! Gaztelako arrak / Jan deusuz sustrai guztiak, / Bai-ta biotza, bai-ta barruak, / Azala itxi-ta bestiak (Arrese Beitia, 1999 1: 88).

“Gaztelako arrak”, hortaz, jan omen dizkio barruak Gernikako haritzari. Baina poema arretaz eta osotasunean irakurriz gero, hasierako inpresio hori egokitu beharra dago. “Gaztelako arrak” bere bidea egin badu, euskaldunek “euskeriari gorroto” izan diotelako egin du, goragoko aipu batean ikusi dugunez.

Erretorikaren hiru generoetatik iudizial edo forenseak salaketa eta defentsa ditu helburu. Defentsarako aukerarik ahulena deprekazioa da. Deprekazioaren arabera bere burua defenditzea baino beste aukerarik ez duenak, bere errua onartu, egindako kalteagatik barkamena eskatu, damua erakutsi eta berriro ez duela halakorik egingo esan behar du. Deprekazioaren topika² hori Arrese Beitiaren poemaren muinean dago:

Geur'erruz bada ekarri dogu / Eriotzako unera / Berbeta eder, gozo ta leun au / Beste munduko atera (9. ahap.). Zer aldaikezut, Ama, bakarrik / Agonia estu orretan? / Zotin, zizpuru, negarrez urtu / Etzinik zeure oñetan; / Parka eskatu seme danentzat / Biotzez bene-benetan, / Zuri arimia lagun ipinten / Jaungoikuaren eskutan (13. ahap.).

Hortaz, ama euskararen seme-alabak dira amaren egoeraren erantzunkizuna dutenak eta amarekiko jarrera aldatu behar dutenak. Honetan ere Otxandiotarra Campionekin bat zetorren:

2. Deprekazioa egiteko prezeptibaz erretorika klasikoan ikus Lausberg §§ 192-194. Lausberg-ek oso laburtuta dakartza prezeptu horiek, baina iturri nagusiak aipatu ditu.

El enemigo que nos aniquila, el enemigo que pretende borrar hasta el nombre de euskaldunas [...] es enemigo doméstico. Vive entre nosotros, se llama como nosotros, pertenece a nuestra raza y familia [...] La gravedad de la crisis actual estriba en que la dejación de la lengua vasca va pasando de la categoría de inconsciente, involuntaria, a hecho voluntario, consciente, perpetrado con deliberación (ikus Corcuera, 2001: 148).

Euskaldunen lurraldeak eta herritarrak banatzen dituzten estatuen politika zapaltzailea bortizki salatu zuen Campionek, baina begiz galdu gabe euskaldunen utzikeria eta epelkeria, batez ere goi mailakoena (Intxausti, 1985 2: 384-385). Kexua ez zen berria. Larramendi ohartua zen arazoaz, eta XIX. mende hasieran aita Juan Mateo Zabala frantziskotarra mingosturik zegoen euskara “gustien osticopean” ikusten zuelako, “iñoc bere icusi gura ez dabela; eta euskaldunac eurac erbestetu eta aaztu gura leukela” (ikus Altuna, 2003: 140).

Tubalen mitoa bereganatzen duen heinean, Arrese Beitiaren poema jatorri etnikoaren mito batean (“myth of ethnic descent”) oinarrituriko diskurtsotzat jo daiteke. Smithek mito horiek izan ohi duten garrantzia talde identitatearen eraketan azpimarratu du. Izan ere, mito horien aldi berria, Erromantizismoa alegia, uztarturik zetorkion nazionalismoaren ideologiari, zeinak gizabanakoen eta kolektibitatearen arteko harreman “egiazkoen” ikuspegi orokorra hezurmamitzen baitzuen (Smith, 2000: 1397). Indar nazionalista bakoitzak bere jatorri berezia duen arren, jatorri etnikoaren mito horiek osagai beretsuak ageri dituzte: sorrera unea; lekurtze eta migrazioa; antzinatea; garai heroikoa edo urrezko aroa; gainbeheraldia; eta azkenik ernaberritzearen garaia edo urrezko aroaren berrezarketa (Smith, 2000: 1399-1405). Arrese Beitiaren poemak osagai horiek guztiak biltzen edo iradokitzen dituen arren, azken aurrekoan jarri du arreta, urrezko aroaren gainbeheran alegia, “*A myth of decline, or how we fell into a state of decay*” Smithen hitzetan. Urrezko aroa, noski, foruak indarrean izan diren garairekin identifikatzen da, apologistek antzinateko urrezko aro hartako legeen aztarna soiltzat jotzen baitzituzten foruak, eta legeekin batera euskaldunak bait lirateke orduko hizkuntza gorde duten bakarrak (Madariaga Orbea, 2008: 23-26). Apologisten oihartzuna bezain agerikoa da Otxandioko santu-ginaren irudikapenean soteriologia kristauaren eredia, salbazioaren historiak utzitako lorratza. Izan ere, kristautasunaren eragina ezinbestekotzat jo izan da Europako nazio identitateen sorreran, alde batetik Testamentu Zaharrak Israel nazio-estatuaren eredia eskaini dielako nazio berriei Jainkoarekiko itunaren kontzientzia eta guzti; eta bestetik tokian tokiko hizkuntzen idazkera sustatu duelako Bibliaren itzulpen, sermoigintza eta erlijio literaturaren bitartez (Hastings, 2000: 229-257). Biblia irakurgai gogokoaren artean duen Arrese Beitiak ere galbidez eta hondamendiaz dihardu hemen, baina diskurtso horrexek berak txertatuta dakar salbazioaren aukera, egindako okerra zuzenduz, damua erakutsiz eta barkamena eskatuz barkatzen baitira bekatuak. Izan ere, kristauen aitortza edo penitentzia (sakramentua katolikoen artean) gorago aipaturiko deprekazioaren egokitzapen konfesionala baino ez da. Arresek penitentziaren unean egin ohi den konfesioa eredutzat hartuta, pekatari soilaren tokian “seme leiala” jarri du herri pekatari osoaren izenean diharduela.

Salbazioarako bidea, ordea, beranduago garatu zuen “Bizi da ama euskera” poeman, 1880an Maulen ospaturiko Lore Jokoetan aurkezturiko hartan, Duvoisinek eskatuta (Urrutia, 2004: 12). Euskera Amak berak iragarritako salbazio bidea espero zitekeena da: “Bizirik euki naitzen, / Berbeta gozo eder onetan / Saiatu danok egiten” (Arrese Beitia, 1991 1: 102). Campion ere iritzi berekoa zen hizkuntzaren eta nazioaren arteko harreman estuari dagokionez, eta berak ere hizkuntzan jartzen zuen herriaren salbazio-bidea *Gramática de los cuatro dialectos* (1884) izeneko lanari erantsitako oharrean: “El bascuence puede salvarse... y salvarnos. Querer es poder” (Intxausti, 1985: 385). Neurri batean behintzat, arrazoiz esan da Arrese Beitia Campionen *alter ego* bizkaitarra dela (Elorza, 1985: 533)³.

“Bizi da ama euskera” poeman, Ama Euskera ez ezik, aita Tubal bera ere agertu zaio poemaren iturburu den seme leialari penitentzia berria eskatuz barkamerako. Euskal lurralde guztiak damua erakutsi dutela ikusirik ere (“Orain guztiak negar dabe egin / ezaguturik okerra”), barkamena lortzeko anaitasunean bizi beharko dute: “Orain arteko uts egitiak / Daukazuez barkatuak / Baldin bazare aurrera izaten / Anaiok alkar artuak (Arrese Beitia, 1999 1: 100-101).

Beraz, salbaziorako baldintza den heinean, zazpi probintzien artean ordura artekoa baino batasun estuagoaren irrika erakutsi du poetak, eta berarekin batera, poema idaztea eskatu dion Duvoisinek eta Lore Jokoen antolatzaileek ziur asko.

Bidenabar, apologistengadik jasotako Tubalen mitoaren azkenetariko aipamenak Lore Jokoetako giro literarioan aurkituko ditugu ziurrenik. XIX. mende hasierarako tubalismoaren sinesgarritasuna ahultzen hasia zen pentsalarien artean, euskaldunen euren artean ere: horra hor Mogelen iritzia (Tovar, 1980: 109) edo Astarloarena (Juaristi 1989: 185). XX. mendean, gerra aurreko poetek ahaztuak dituzte XIX.eko idazlan ugari elikatu zuten pertsonaia mitiko eta legendazkoak, bai eta historikoak ere, eta historiari begiratzen dioten adibide bakanetan ere ordura arteko literaturan oihartzun nabarmenik gabeko uneak dira oraingoan arreta jasoko dutenak, Lauaxetaren “Amayur gaztelu beltza” esate baterako. Arrese Beitiak Tubalen mitoa biltzen duenean apologistengandik zetorren tradizioan txertatzen du bere diskurtsoa. Eta hala ere azpimarratu beharrekoa da tradizio hori zenbateraino bihurtu eta aldatu duen. Tubal pertsonaia biblikoa Gaztelako gortearen babespeko historialariengandik apologista euskaldunek bereganatu zutenean prestigiodun sorrera mito batekin lotu nahi zituzten euskaldunak, Tubalek Iberia osora ekarri eta hedaturiko hizkuntza zaindu zuten bakarrak zirelakoan. Mito horren

3. Otxandiokoak Sabino Aranarekin bat egin zuen euskara eta erdararen arteko banaketa binarista eta manikeoan, baina Aranak berak azken aldiko jarrera pragmatikoa garatu baino lehen bere burua Arrese eta Campionengandik bereizi zuen bakezaleak zirela egotzita (ikus Zelaieta, 1978 eta Zelaieta, 1999).

bitartez Monarkia Hispanikoan irrikatzen zuten tokia legitimatu nahi zuten apologista euskaldunek lehen espainiarrak zirelakoan, godoena bezalako jatorri beranduagokoa aldarrikatzen zutenen aurrean. Beraz, Tubalen mitoa ezin egokiagoa zen monarkiarekiko lotura irudikatzeko eta aldi berean monarkia horretako beste kideengandik bereizteko. Arrese Beitiaren irudikapenean, ostera, Tubal euskaldun guztien aita gisa soilik dago aldarrikatua, eta ez Espainiarekiko lokarria izan zitekeen heinean. Beraz, Tubalen itzalpean bildutakoak euskara gorde duten lurraldeak baino ez dira, euskara inoiz lurralde zabalagoetako hizkuntza ote zen gogoan hartu gabe. Euskararen lurraldeotako bizilagunak dira jatorriz dagozkien anaitasunak baturik aurrerantzean bizi behar dutenak.

Arrese Beitiari, eta berarekin batera Lore Jokoen inguruan jardun zuten poeta, idazle, sariketa literarioen antolatzaile eta epaimahaiko, eta orokorrean kultur eragile eta mezenasei ere zazpi probintzietako euskaldunak irudikaturiko komunitate (“imagined community”) begitantzen hasi zitzaizkien, nazio alegia, Andersonek nazioarentzat proposaturiko definizio ezagunaren arabera: “it is an imagined political community –and imagined both as inherently limited and sovereign” (Anderson, 1991: 6). Burujabetzaren azken aztarnak galdu izanak ez zuen esan nahi burujabetzari uko egin zitzaiola, berreskuratu beharrekoa zela baizik, eta oraingoa beste lurraldeetako euskaldunekin batera. Euskaldunen arteko batasunaren kezka “Ama euskeriaren azken agurrak” idatzi orduko ere bazuenez gero, gogoz hartuko zuen Duvoisenen eskaria poema berria idazteko: “Duvoisen jaunak eskribidu eustan iminteko beste eresi bat batasunaren gañean eta Euskera bizi zala” (Arrese Beitia, 1999 2: 1232). Duvoisenek 1879ko azaroaren 8an d’Abbadieri idatziriko gutunean Arreseren jarrera onaren berri eman zion: “M. Phillipe de Arrese va nous envoyer un nouveau chant. Il veut pousser tous les Basques à l’union nationale, et à laisser les Espagnols s’agiter à leur guise” (Goyhenetche, 1997: 182 eta 196). Beraz, euskaldunak elkartzera bultzatu nahi ditu Otxandiokoak, eta aldi berean espainolengandik bereiztera, haien arazo dinastikoetatik batez ere. Zentzuzkoa da Manex Goyhenetcheren iritzia Arrese Beitia gerra karlisten amaieratik Aranaren nazionalismora doan trantsizio aldikotzat jotzen duenean. Ez da harrigarria Lore Jokoetako poesia sariketen giro honetan sortu eta garatu izana “Zazpiak bat” dibisa, lehenagoko “Hirurak bat” edota “Laurak bat” gaindituta. Campionek Asociación Euskara de Navarra erakundearentzat aldarrikatu bazuen ere horren meritua (Campion, 1985: 289; ikus Nieva Zardoya, 1998: 401), Xabier Altzibarrek erakutsi du Larramendiz geroz lurralde guztietako euskaldunen arteko batasunaren ideia giroan zegoela Euskal Herri penintsularrean nahiz kontinentalean (Altzibar, 1998: 664).

Nazio identitate hori diskurtso poetikoan hezurmamitzea ez zen ondoriorik gabekoa izan. Arrese Beitiak 1879an Elizondoko Lore Jokoetako sari nagusia irabazi zuenean, epaimahaiaren erabakia isilpean jakinarazi zitzaion irabazleari poemaren gaiak Lore Jokoak berriro ospatzeko debekua ekarri behar zuen beldurrez azken gerra karlista zela eta oraindik setiopean zegoen Euskal Herri penintsularrean (Toledo, 1998: 537). Nafarroako Asociación

Euskara zen diru saria jarri zuena eta erakunde berak argitaratu zuen poema irabazlea *Revista Euskara* aldizkarian baina ez ziren ausartu gaztelaniatzko itzulpena eransten (Urrutia, 2004: 12). Ahaztu gabe zegoen nonbait Iparragirrek larrutik ordaindu zuela “Gernikako Arbola” kantuaeren arrakasta. Kantu hori diskurtso poetikoak gizartean izan zezakeen eraginaren adibide argia zen. Elizondoko Lore Jokoen antolatzaileen beldurrak ez ziren mamitu azkenean, baina estatuen nazio identitate ofizialekin talka egitera deitua zen beste nazio identitate baten sorrera ageriko egin zen orduantxe bertan. Identitate hori ondorengo urteetan hedatzeko eta politikoki antolatzeko oinarriak jarri ziren heinean, aurre-abertzaletasun giroa bizi zen Lore Jokoetako poesia lehiaketetan 90ko hamarkadan (Haritschelhar, 1998: 653). 1896tik aurrera Arrese Beitiak berak ere Sabino Aranaren ideologiarekin bat egin zuen (Urrutia, 2004: 12).

Erregimen zaharraren amaiera traumatikoa izan zen euskaldun askorentzat, baina galera ugarien artean ere, hizkuntzari arreta eta duintasun berritua eskaintzea etorri zitzaion. Eraberriketa horren asmatzaileak d’Abbadie eta Campion bezalako eragileak izan baziren ere, herri-poetei zor zaie hizkuntzarekiko ideia eta jarrera berri horiek alde batetik euren lanetan gauzatzea, eta bestetik herri xeheari eskaintzea, iritzi publikoan zuten eragin zuzenaren bitartez Lore Jokoak bezalako ekitaldiei esker. Ez nolahi, garai honetan lekutu da euskal poesiaren instituzionalizazioa kultura eragileek eta eragileok sorturiko talde kulturalak, poesia lehiaketek, aldizkari eta bestelako argitalpenek eraikia (Lasagabaster 2002: 100-103; Aldekoa, 2003: 11-12; Rubio, 2003: 254-331).

Egiteko horretan Arrese Beitiaren ekarria aitortu beharrekoa da. Poeta estimatua izan zen Arrese bere garaian, egun ez bezala. Laudoriorik handienak behar bada Campionek eskaini zizkion. Pentsalari nafarraren ustez Arrese zera zen: “lo más que puede ser el hombre, y sobre todo el poeta: personificación de un pueblo entero”, aberriaren barruko nahiz kanpoko irudia ondoen islatu duen poeta:

Arrese es un gran poeta, pero un poeta *euskaro*, y a mi modo de ver, en la expresión del sentimiento de la patria, el más acentuadamente *euskaro* de todos. Tomad cualquiera de sus grandes poesías y contemplaréis el reflejo moral y físico de la patria baskongada (Campion, 1900: xvii eta xxi).

Campionek Arrese irudikatu du Herder-ek Ossian ezagutzera eman zuen Macpherson eskoziarra irudikatu zuen bezala:

Le poète moderne [Macpherson] est alors l'exemple illustre d'un auteur véritablement national ayant su restituer le génie de son peuple. Tout comme Goethe, ou Shakespeare, dont Herder inclut des textes dans son recueil *Volkslieder*, au côté d'extraits d'Homère, d'Ossian ou du *Minnesang* (Thiesse, 1999: 40).

Herri gogoia ondoen adierazi zuelakoan, Campionek euskal poeta nazional gisa kanonizatu nahi izan zuen Arrese Beitia, geroak toki hori bermatu ez badio ere.

3. LAN AIPATUAK

- ALDEKOA, Iñaki. "Bertsolaritzatik poesiara. Euskal poemagintza modernoaren ernamuinak (1880-1900)". In: *Iker*, 14 (II), 2003; 3-13.
- ALTUNA, Belén. *Euskaldun fededun*. Irun: Alberdania, 2003.
- ALTZIBAR, Xabier. "Euskaldunen nazio eta hizkuntza (1770-1830)". In: *Euskera*, 31, 1986; 17-45.
- . "'Zazpiak bat' gaia XIX. mendean". In: *Antoine d'Abbadie 1897-1997: Congrès International*. Donostia: Eusko Ikaskuntza; Bilbo: Euskaltzaindia, 1998; 663-688.
- ANDERSON, Benedict. *Imagined Communities. Reflections on the Origin and Spread of Nationalism*. Londres: Verso, 1991.
- ARRESE BEITIA, Felipe. *Felipe Arrese eta Beitia: idazlan guztiak*. Itziar Urrutiaren ed. Bilbo: Bizkaiko Foru Aldundia, 1999. 2 liburuki.
- AZCUE-ko, Eusebio Maria. *Euskarazko vertsoak*. Bilbo: Labayru Ikastegia; Bilbao Bizkaia Kutxa, 1990.
- AZURMENDI, Joxe. *Volksgeist. Herri gogoa. Ilustraziotik Nazismora*. Donostia: Elkar, 2007.
- CAMPIÓN, Arturo. "Felipe de Arrese y la poesía popular baskongada". In: ARRESE BEITIA, Felipe. *Ama euskeriaren liburu kantaria*. Bilbo: José Astuy, 1900; v-xxxii.
- . "D. Juan Iturralde y Suit". In: CAMPIÓN, Arturo. *Obras completas*. Iruñea: Mintzoa, 1985; 14. liburukia. 15 liburuki.
- CORCUERA ATIENZA, Javier. *La patria de los vascos: orígenes, ideología y organización del nacionalismo vasco (1876-1903)*. Madril: Taurus, 2001.
- ELORZA, Antonio. "Política, nacionalismo y cultura". In: INTXAUSTI, Joseba (zuz.). *Euskal Herria. Historia eta gizartea*. Donostia: Jakin, 1985; 1. liburukia, 529-535. 2 liburuki.
- GOYHENETCHE, Manex. "Antoine d'Abbadie intermédiaire social et culturel du Pays Basque du XIX^e siècle?". In: *Antoine d'Abbadie 1897-1997: Congrès International*. Donostia: Eusko Ikaskuntza; Bilbo: Euskaltzaindia, 1998; 175-208.
- HARITSCHELHAR, Jean. "Ideologiak Lore Jokoetako kantuetan". In: *Antoine d'Abbadie 1897-1997: Congrès International*. Donostia: Eusko Ikaskuntza; Bilbo: Euskaltzaindia, 1998; 621-653.
- . "Gernikako Arbola véritable hymne basque". In: <http://artxiker.ccsd.cnrs.fr/artxibo-00084561/fr/> (*Lapurdum*, 5, 2000; 309-322).
- HASTINGS, Adrian. *La construcción de las nacionalidades*. Madril: Cambridge University Press, 2000.
- HUMBOLDT, Wilhelm von. *Los vascos*. Bilbo: Astero, 2006.
- INTXAUSTI, Joseba. "El euskara: De su mito a la conciencia nacional. Hizkuntzaren kontzientzia eta eskea historian". In: INTXAUSTI, Joseba (zuz.). *Euskal Herria. Errealitate eta egitasmo*. Donostia: Jakin, 1985; 2. liburukia, 361-386. 2 liburuki.
- . *Euskara, euskaldunon hizkuntza*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritza, 1990.
- . "W. von Humboldt: Haren eta harekiko 'gure' argitalpenak". In: *Revista Internacional de los Estudios Vascos*, 41: 2, 1996; 623-642.

- JUARISTI, Jon. "Las fuentes ocultas del romanticismo vasco". In: *Congreso de Literatura. (Hacia la literatura vasca)*. Madril: Castalia, 1989; 165-192.
- LASAGABASTER, Jesús María. *Las literaturas de los vascos*. Bilbo: Deustuko Unibertsitatea, 2002.
- LAUSBERG, Heinrich. *Manual de retórica literaria*. Madril: Gredos, 1983; 1. liburukia. 3 liburuki.
- MADARIAGA ORBEA, Juan. *Apologistas y detractores de la lengua vasca*. Donostia: Euskal Herriko Zuzenbide Historiko eta Autonomikoa Aztertzeo Fundazioa, 2008.
- MENZE, Clemens. "Carácter nacional y lengua según Wilhelm von Humboldt". In: *Revista Internacional de los Estudios Vascos*, 48: 1. Donostia: Eusko Ikaskuntza, 2003; 33-49.
- NIÉVA ZARDOYA, José Luis. "D'Abbadie y Navarra: el ejemplo más allá de los Pirineos". In: *Antoine d'Abbadie 1897-1997: Congrès International*. Donostia: Eusko Ikaskuntza; Bilbo: Euskaltzaindia, 1998; 399-410.
- RUBIO POBES, Coro. *La identidad vasca en el siglo XIX. Discursos y agentes sociales*. Madril: Biblioteca Nueva, 2003.
- SMITH, Anthony D. "National identity and myths of ethnic descent". In: HUTCHINSON, John; SMITH, Anthony D. (ed.). *Nationalism. Critical Concepts in Political Science*. Londres eta New York: Routledge, 2000; 4. liburukia, 1394-1429. 5 liburuki.
- THIESSE, Anne-Marie. *La création des identités nationales. Europe XVIII^e-XX^e siècle*. Paris: Seuil, 1999.
- TOLEDO LEZETA, Ana M^ª. "Antoine d'Abbadie Hegoaldean (1879-1895)". In: *Antoine d'Abbadie 1897-1997: Congrès International*. Donostia: Eusko Ikaskuntza; Bilbo: Euskaltzaindia, 1998; 535-546.
- TOVAR, Antonio. *Mitología e ideología de la lengua vasca*. Madril: Alianza Editorial, 1980.
- URRUTIA, Itziar. *Felipe Arrese ta Beitia (1841-1906)*. Bidegileak bilduma. Gasteiz: Eusko Jaurilaritza, 2004.
- ZABALETA GORROTXATEGI, Iñaki. "Euskal Herria vista por Wilhelm von Humboldt: la nación vasca". In: *Revista Internacional de los Estudios Vascos*, 48: 1. Donostia: Eusko Ikaskuntza, 2003; 199-236.
- . "Euskaldunak Wilhelm Von Humboldt-en begietan". In: *Egan*, 61, 2008; 15-32.
- ZELAIETA, Angel. *Foruak eta euskal literatura*. Donostia: Kriseilu, 1978.
- . "Arrese Beitia edo zelan erdara euskararen etsai den". In: *Bidebarrieta*, 4, 1999; 161-170.